

## Jardun koordinadora Maiatzaren lehenaren harira Laudioko kaleetatik mobilizatu da

LA HAIN - EUSKAL HERRIA :: 01/05/2021

[Eusk/Cast] Euskal Herriko kaleak langile klaseak jasaten duen esplotazio eta baldintza kaskarrak salatzeko bete dira

### [Euskara]

#### **Jardun koordinadora Maiatzaren lehenaren harira Laudioko kaleetatik mobilizatu da**

*Euskal Herriko kaleak langile klaseak jasaten duen esplotazio eta baldintza kaskarrak salatzeko bete dira*

Jardun koordinadorak Maiatzaren Lehena dela eta, "Langile altxa antolatu iraultza", "Aberri gorria, biharko Euskal Herria", "Euskal Herri Langilea Aurrera"... leloen pean Laudioko kaleetatik manifestazioa burutu du. Mobilizazioa Herriko Plazatik hasi, herriko kaleetatik pasa eta plazan bertan bukatu da. Mobilizazioan 150 pertsona inguru parte hartu dute. Beste hainbatek, ordea, indar polizialen identifikazio zein kontrolen ondorioz, ezinezkoa izan dute mobilizaziora batzea, etxerako bidea hartu behar izan dutelarik. Jazarpen poliziala Maiatzaren Lehenean ere, Euskal Herri Langileak jasaten duen kontrolaren erakusle garbia da. Aipatu beharra dago, goizean goizetik poliziaren presentzia itogarria izan dela, manifestazioan parte hartu nahi zuten zenbait pertsona identifikatu eta "terminar en el calabozo" mehatxupeak herritik alde egitera behartu dituzten punturaino.

Gaurko mobilizazioa Aiaraldeko eskualdeak azken hilabeteetan bizi duen errealtitatearen barne kokatu beharra dago. Ematen ari den gatazka guztien artean, Tubacex-eko langileek patronalak burutu nahi dituen 129 kaleratzearen aurka burutzen ari duten greba mugagabea da oihartzun handiena izaten ari duena.

Era berean, Jardun koordinadorak langileriak pairatzen duen zapalketa behin-behineko egoera bati erantzutea baino, kapitalaren berezko izatearen ondorio dela azpimarratu du. Ildo horretatik, Euskal Herri Langilearen helburuak prozesu iraultzailearen gauzapenaren bitartez erdietsi daitekeela baiezta du. Horretarako, Jardunen arabera Euskal Herriko langile klasearen interesei erantzun behar dien alternatiba iraultzailearen osaketa beharko baldintza da.

### [Castellano]

#### **La coordinadora Jardun se ha movilizado por las calles de Laudio con motivo del primero de Mayo**

*Un año más, las calles de Euskal Herria se han vuelto a llenar para denunciar la explotación que padece la clase trabajadora*

Bajo los lemas “Langile altxa antolatu iraultza”; “Aberri gorria, biharko Euskal Herria”; “Euskal Herri Langilea Aurrera”... la coordinadora Jardun ha organizado una manifestación por las calles de Laudio con motivo del uno de mayo. La manifestación ha arrancado desde la Herriko Plaza y tras recorrer las calles de la localidad ha finalizado en la misma. Unas 150 personas han participado en la manifestacion, mientras que otras tantas han tenido que dar la vuelta tras ser identificadas y sancionadas en los accesos de la localidad, muestra a su vez del control y acoso que padece la clase trabajadora incluso en el uno de mayo. Cabe mencionar que la presencia policial ha sido constante desde primeras horas de la mañana hasta el punto que han identificado a varias personas que pretendían participar en la movilización a las cuales bajo amenaza de “terminar en el calabozo” han obligado a abandonar la localidad.

La movilización de hoy debe contextualizarse dentro de la realidad que vive en los últimos meses la comarca de Aiaraldea. En estos momentos el conflicto que más eco está teniendo es el protagonizado por los trabajadores de Tubacex que continúan en huelga indefinida con el objetivo de revertir los 129 despidos que consumó la patronal hace dos semanas.

De la misma manera, la coordinadora ha remarcado que la opresión que padece la clase trabajadora más allá de ser un hecho coyuntural, responde a la naturaleza intrínseca del capital. Asimismo, ha remarcado que las aspiraciones del Pueblo Trabajador Vasco únicamente podrán ser satisfechas mediante la consecución de un proceso revolucionario. Para ello, según Jardun es necesario vertebrar una alternativa revolucionaria que responda a los intereses de la clase trabajadora de Euskal Herria.

---

<https://eh.lahaine.org/la-coordinadora-jardun-se-ha>